

## 2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana. Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Testua. TEXTO.

### **Ipui bat bost minututan izkribatzeko**

Ipui bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu —ohizko luma eta paper zuna ez ezik—, hareazko erluju nimiño bat ere, zeinek, iragan denboraren berri ematen dizunarekin batera, bizitzaren eta —ondorioz— zeure aktibitate horren berberaren alfertasuna ere irakatsiko dizun, eta une oro salatuko. Eta ez eseri gero oraingo orma monotono horietako bati begira; zure begirada gal dadila leihotik haruntz hedatzen den ikusmira zabal horretan, non kaio eta uxtoak, eta baita zenbait txori ezdeusagoak ere, beren bozkarioaren geometria marraztuz doazen. Komeni zaizu, gainera —derrigorrezkoa ez izan arren— edozein musika arrotz entzutea, ulertzen ez duzun kanta errusiarren bat edo.

Gauzak hola, jira zaitez zeure gorputzaren baitarantz, eta galde egiozu ea gogo onez dagoen, ea baduen egarri ala goserik; egarri, gose edo bestelako larritasun motarik. Erantzuna baiezkoa bada —hazkura orokor bat sentitzen baduzu, esaterako— ez zaitezela horregatik etsipenean eror, zeren suerte txarrekoa ere izango bailitzateke lehen saioan, aurreneko ahaleaginean, lana bideratu ahal izatea. Kontuan izan, bestalde, nola oraindik minutu erdia ere bete ez den. Altxa zaitez, beraz, eta zoaz sukalderaino; eta lasai ibili, ez hartu presa larregirik.

Sukaldean ontzi bete ur edan ondoren —eta lepagaina ur horren piska batez igurtzi ezkerre, are eta hobekiago—, bisita ezazu komuna mahai aurrean ver eseri aurretik. Zeren pasiluan pixa egiteak ez baitu zer ikusirik literaturarekin. Hor segitzen dute kaiok eta uxtoek, leihoz haruntz hegaka; eta hor segitzen du, baita ere —ezkerretara daukazu apalean— zure betiko hiztegi zahar eta handiak. Har ezazu segituan, eta kontu handiz hartu ere, elektrizitatea balu bezala. Ondoren, hiztegia maitale bat bailitzen besarkatuz, jar ezazu esaldi hau paperean: Ipui bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu.

Ez dira bi minutu bete oraindik, eta jadanik egin daukazu hasiera. Zorionak, beraz, nire zorion beroenak, Eta ez bakarrik betiere hain zaila izaten den hasiera horregatik, baita besarkatzen duzun hiztegi haundi eta zaharragatik ere; zeren, sinestaidazu, bere orrialdeetan dago falta zaizun guztia. Zinez esaten dizut: kutxa horretan gordeta dauden milaka hitzen ahalmena infinitoa da, nahi den guztia egin liteke beraiekin.

Obeditu egiozu orain zure senari, eta imajinatu zu zeu Golem berbera zarela, hots, letraz eginiko gizon ala emakume bat. Bada, zure osagarri diren letra horiek aurki dezatela beren letrakidea —sinpatiaz lehertzen diren dinamita kartutxoak bezala— hiztegiaren artean. Nola? Zein ekintzaren bitartez?... gizona, ez zaitez hain makala izan. Ez al dakizu liburu bat zabaltzen?

Eman dezagun baietz, eta hiztegia hogeigarren letra paretik zabaldu duzula. Halatan, burutu da ekintza, eta segundu gutxi batzuren truk, gainera. Zeren zuk argia ematearekin batera, gordeta eta lo zegoen hitz bat esnatu egin baita, eta zure orriraino jaitsi; atsegin, ezti, zure ipuinari zerbitzatzeko prest. Sarea da hitz horren izena.

Eta hor non mugimendu ttiki hori hiztegi guztia kutsatzeraino hazitzen den. Bai, letra guztiak urduri daude, atera dira beren lozorrotik; eta oihu egiten dute, edo kanta edo hasperen...eta ez da, pentsatzen jarrita, hain harritzekoa ere. Hiztegiaren bici direnak

umeak bezalakoak baitira; ume hutsak, jostatzeko gogoz beteak.

Luze gabe, bigarren hitz bat —inbidiatan aurrenekoarekin— inguratu egiten zaizu, eta paper zuriaren iskina batean etzan. Esku: hauxe da bidailari berriaren izena. Jadanik ez duzu hiztegiarik behar. Uztazu berriro apalean, eta makurtu zaitez mahaira. Izan ere, denbora aurrera doa, eta aurreneko bi hitzek osatu duten esaldia lehen bait lehen idatzi beharra daukazu... bai, gizona, parentesi artean bilduta datorren esaldi labur hori:

(—*Sare hau jarri nuen aurpegian eskuak erre zitzaizkidan egunean*).

Oraintxe bete dira hiru minutuak, eta bi besterik ez zaizkizu gelditzen. Halere ez zaitu denbora gutxi horrek arduratu behar. Zeren aurreneko esaldi hori idatzi bezain azkar, beste askok ere egin nahi izango baitute zureganako bidea, halanola egiten duen gau tximeletak argirantz. Ondo pentsatu ondoren, esaldi bat aukeratu eta parentesi artean jar ezazu. Honako hau, esate baterako:

(—*Jendeak gupida hartzen zuen nitaz, eta batez ere aurpegiagatik, aurpegia ere errea neukala uste zutelako denek. Ez ziren nire sekretuaz jabetzen, eta horrek, niri, harrotasun haundia ematen zidan. Beraien gupida faltsuaren gainetik jartzen ninduela iruditzen zitzaidan*).

Bi minutu gelditzen zaizkizu oraindik. Murgildu zaitez paperean, ahaztu zaitez munduaz; joka ezazu hitzekin prestidijitadoreak paineluekin bezala. Eta, oroz lehen, zabal ezazu —ale hop!— hirugarren parentesia:

(—*Badakizu oso emakume ederra nintzela. Hamar bat gizonek loreak bidaltzen zizkidaten egunero*).

Zabaldu, halaber, laugarrena, eta korrika idatzi esaldi berria aurrekoarekin la kateaturik etorri dena:

(—*Horietako gizon batek nirea jakin eta aurpegia erre zuen, baina benetan, ez itxuraz, eta gutun bat egin zidan gero. Biok egoera berdinean geundela, zioen, bere jokabidea maitasun froga bat besterik ez zela*).

Begirariozu eriojuari: azken minutua xahutzen hasi da. Serenitatea behar duzu orain. Aurrera, ipini beste esaldi bat paperean:

(—*Nigar asko egin nuen gutuna irakurri eta gero. Hunkitu egiten ninduen gizon haren humiltasunak. Baita noraino maitatzen ninduen ikusteak ere*).

Berrogeitabost segundu baizik ez zaizkizu geiditzen. Ez etsi, bultzada ttiki bat eta amaieran aurkituko zara. Ekin seigarren parentesiari:

(—*Nire aurpegia erretzekotan egon nintzen aurreneko mementuan. Erantzun egin nahi nion bere maitasun frogari. Baina ez nuen asmoa bete. Alde batera, ikara ematen zidan sufrimendu fisikoak, eta, bestera, harreman hasiera ederregia iruditzen zitzaidan. Berak aurpegia erre, nik aurpegia erre; ez dakit, maitasun gehiegizkoa zen. Nola murgildu gero, bikote bat bezala, eguneroko bizitza arruntean? Baina, bestalde, ezin nuen nire maitalea baztertu. Eta egia ere ezin nion azaldu, ez naiz hain krudela. Horregatik joan naiz gaur bere etxera. Nik sare bat neraman aurpegian; berak beste bat. Bularrak eskaini dizkiot, eta muxurik gabe maitatu gara, bi disfrazatu bezala. Gero labana sartu diot bihotzean, eta nigarrez hasi naiz, bere gutuna irakurri nuenean bezala. Eta nigar egin bitartean galde egiten nion neure buruari, zergatik bihurtu ote zen latz nire tranpa ttikia, zein bide ilunetatik*).

Eta parentesia ixten duzu —ipuiari amaiera emanaz— eriojuaren azken alea erortzera doan une berean.

GAIA/ASIGNATURA	Euskal Hizkuntza eta Literatura
MAILA/CURSO	3. DBH
IKASTETXEA/CENTRO	Iturrama BHI
DEPARTAMENTUA/DEPARTAMENTO	Euskara
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Arritxu Etxaluze Aroztegi Nora Iriarte Osés Iker Iriarte Ariztimuño Violeta Pérez Arana Belen Apezetxea Larrainzar
<b>JATORRIA/FUENTE</b>	
EGILEA/AUTOR	<b>Bernardo Atxaga</b>
IZENBURUA/TÍTULO	<b>Obabakoak.Ipui bat...</b>
ARGITALETXEA/EDITORIAL	Erein
URTEA/AÑO	2001
ORRIALDEA(K)/PÁGINA	
ISBN	978-84-7568-824-4
<b>TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA</b>	
OINARRIA/SOPORTE	Inprimatua
FORMATOA/FORMATO	Jarraia
MOTA/TIPO	Narrazioa
ERABILERA/USO	Hezkuntzako
<b>ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA</b>	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ANTES DE LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Titulua irakurri ondoren, honen inguruan erabil daitezkeen estrategiak: testuaren edukia aurreratu, hipotesiak eginez helburua hausnartu</li> <li>- Hitz ezezagunen esanahiaren inguruan hipotesiak egin</li> <li>-Forma: begi bistako egitura (eskemak, zerrendak, zutabeak...) eta tipografia aldeztu.</li> </ul>
IRAKURRI BITARTEAN/DURANTE LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzen ez dituzten hitz solteak azpimarratu eta testuinguari erreparatuz esanahia ondorioztatu.</li> </ul>
IRAKURRI ONDOREN/DESPUÉS DE LA LECTURA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua berrirakurri (azkarrago, lehen irakurketan ulertu dutenean)</li> <li>- Gaia ala tesia ondorioztatu.</li> <li>- Eskema.</li> <li>- Testuaren komunikazio elementuak (igorlea, hartzailea, testuingurua...) aztertu.</li> <li>- Testuaren informazioaren eta ikasgaiaren edukiaren arteko lotura aztertu.</li> <li>- Testuaren informazioak eguneroko esperientzian izan dezakeen eragina aztertu.</li> <li>- Testuaren informazioak beste alorrekin (zientziak, kultur esparruak...) izan dezakeen</li> </ul>

		lotura aztertu. - Irakurri baino lehen eta bitartean egindako hipotesiak gauzatu diren aztertu.
<b>JARDUERAK/PROCESOS LECTORES</b>		
INFORMAZIOA BILATZEA EDO ESKURATZEA RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zer da beharrezkoa ipuina idazteko testu honen arabera?
	Erantzuna Respuesta	Paper zuna, ohiko luma eta hareazko erloju (nimiño) bat.
	2.	Bila ezazu testuan zer esan nahi duen <i>Golem</i> hitzak.
	Erantzuna Respuesta	Letraz eginiko gizon edo emakumea.
ULERMEN OROKORRA COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Ipuina idazteko jarraibideak nork betetzeko dira? -Irakasleak -Irakurleak -Aurpegian sarea daramanak -Lan luzeegiak egiten dituenak
	Erantzuna Respuesta	irakurleak
	2.	Ipuina idazteko ematen dituen jarraibideak ordena itzazu: a-hiztegia hartu b-sukaldea edo komuna bisitatu c-hitz bat aukeratu d-luma eta papera hartu e-esaldiak osatu
	Erantzuna Respuesta	d-b-a-c-e
INTERPRETAZIOA/ INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	a) Zergatik komeni zaio ipuina idatzi nahi duenari musika arrotza entzutea? -Inspirazioa bereganatzeko. -Idea berriak imitatzeke. -Musikan zaletzeko. -Hizkuntzak ikasteko.
	Erantzuna Respuesta	Inspirazioa bereganatzeko.
	2.	<i>Jira zaitetz zeure gorputzaren baitarantz. Zer esan nahi du horrekin?</i> -Postura desegokian dagoela. -Hausnartu behar dela. -Soinketa lagungarri dela. -Gorputzak agintzen dela.
	Erantzuna Respuesta	Hausnartu behar dela.

EDUKIAREN GAINKO HAUSNARKETA/ VALORACIÓN - REFLEXIÓN - CONTENIDO	1.	<i>Sinestaidazu</i> aditza erabiltzen duenean nori egiten dio erreferentzia? -Igorleari -Igorleari eta hartzaileari -Igorleari nahiz hartzaileari -Hartzaileari
	Erantzuna Respuesta	Igorleari eta hartzaileari.
	2.	Zein da idazleak helarazi nahi digun mezua?
	Erantzuna Respuesta	Edozeinek idaz dezakeela, horretan jartzen bada.
FORMAREN GAINKO HAUSNARKETA/ VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Zertarako erabiltzen ditu parentesia eta letra etzana?
	Erantzuna Respuesta	Barneko ipuina kontatzeko.
	2.	Zergatik erabiltzen ditu etenpuntuak? -Hartzaileak erantzuteko. -Hartzailea dinamizatzeko. -Hartzaileak gogoeta egiteko. -Bere burua animatzeko.
	Erantzuna Respuesta	Hartzaileak gogoeta egiteko.
<b>PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES</b>		